# Bestelako Xedapenak

**OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**69**

210/2008 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA sozietate publikoko kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena eman eta sozietatearen estatutuak aldatzeko dena.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren 110.1 artikuluan honako hau ezartzen du: «Enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea atxikitzen zaion edo atxikiko zaion saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean».

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak halabeharrez adieraziko ditu, non eta ez den doako titulu modura eskuratzen, sozietatearen helburua eta EAEk sozietatean, izan zuzenean zein zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen.

Aipatu sozietatearen sorrera baimentzen duen uztailaren 24ko 129/2007 Dekretuaren 3. artikulutik ondorioztea daitekeenez, Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA sozietatearen xedea ondokoa da:

I.– «Etxebizitza Hutsaren Programa» delakoa kudeatzea, zehazki, bere araubide juridikoa ezartzen duen 316/2002 Dekretuko baldintza eta zehaztapenekin bat etorriaz, eta bai arlo honetaz diren arauak garatu edo ordezteko ezein araudirekin ere. Beraz, jardueraren barruan berariaz sartzen dira honakoak: aipatu bezalako etxebizitzak birgaitu eta errentamendu-erregimenean kudeatzea.

II.– Errentamendu-erregimenean baliatu ahal izateko, ezein lagapen-tituluaren bidez esleitzen zaizkion etxebizitzak kudeatzea.

III.– Ondoren zehaztutakoen etxebizitzak alokairu-erregimenean kudeatzeko jarduera guztiak burutu eta garatzea: sozietaterenak berarenak, etxebizitzaren arloan eskumenak dituen sailarenak, Eusko Jaurlaritzak partai-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

**69**

DECRETO 210/2008, de 9 de diciembre, por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler, S.A. y se modifican los estatutos sociales.

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, dispone que «la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por Decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del consejero o consejera del departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El Decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde al fecha en que se dicte».

El Decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Comunidad Autónoma en la sociedad.

El objeto social de la Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler/Etxebizitza Alokairuetarako Sozietata Publikoa, S.A., tal como se desprende del artículo 3 del Decreto 129/2007, de 24 de julio, mediante el que se autoriza la creación de la citada sociedad, consiste en:

I.– Gestionar el denominado «Programa de Vivienda Vacía», en los términos y condiciones del Decreto 316/2002, por el que se establece su régimen jurídico, así como cualquier otra normativa que se pueda dictar en sustitución o desarrollo de la existente sobre la materia. La actividad incluye, por tanto, y de manera específica, la rehabilitación y gestión en régimen de arrendamiento de dichas viviendas.

II.– La gestión de las viviendas que le fueren adscritas por cualquier título de cesión para su disposición en régimen de arrendamiento.

III.– El desarrollo y ejecución de todas las actuaciones relacionadas con la gestión de las viviendas en régimen de alquiler, bien sean de la propia sociedad, del Departamento competente en materia de vivienda,

detza duen sozietateenak edo hala eskatzen duten beste erakunde edo organismo batzuenak.

IV.– Sozietateak kudeatzen dituen etxebizitzak birgaitzeari dagokionez, obrak, azterketak, proiektuak eta mantenu- eta kudeaketa-lanak kontratatu eta esleitzea; betiere, hartarako legeztatutako esleipendunei zein organismo eskudunei aipatu etxebizitzak eskura jarriaz.

V.– Onuradun legez edo zuzenbidez onartutako beste era batez babesa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, indarrean den araudiak zehaztutakoarekin bat etorriaz, eta hain justu ere honako jarduera hauek burutzeko: babes ofizialeko etxebizitzak transmititzeari doakionez, eskurapenak lehentasunez egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aitortutako eskubideaz -lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzekoaz-baliatzeko bitartekaritza-, kudeaketa- eta exekuzio-jarduerak, alegia; betiere, apirilaren 15eko 7/1988 Legean eta hori garazteko araudian jasotako baldintza eta zehaztapenekin bat etorriaz, eta bai maiatzaren 6ko 103/1997 Dekretuarekin eta arlo honetako arauak garatu edo ordezteko eman dadin ezein araudirekin ere.

VI.– Etxebizitzak eskualdatzeko bitartekaritza eta haien geroztiko akurapena edo salmenta egiteko jarduerei dagokienez, babesa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari; betiere, babes ofizialeko etxebizitzei buruzko araudiarekin bat, etxebizitzon titularrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku jarri behar badituzte.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2008ko irailaren 9an egindako bilkuran, besteak beste, xedea garatzeko behar diren diruzaintzako beharrak asetzeko Batzar Orokorrari kapitala zabaltzea proposatzea ebatzi zuen. Proposamen horrek egun hirurogei mila ehun eta bi eurotan (60.102) finkatutako kapitala zabaltzea dakar, hain zuzen ere, bi milioi bederatziehun eta laurogeita hemeretzi mila seiehun eta laurogeita hamahiru euro eta laurogeita bi zentimo (2.999.693,82); 4.991 akzio berri izango dira eta bakoitzak 601,02 euroko balio izendatua izango du. Guztiak ere sozio bakarrak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak harpidetu eta ordainduko ditu.

Aipatu zabalkuntzan Euskal Autonomia Erkidegoaren zuzeneko parte-hartze portzentajea % 100ekoa da.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

de sociedades participadas por el Gobierno Vasco o de otros entes u organismos públicos que así lo requieran.

IV.– La contratación y adjudicación de toda clase de obras, estudios, proyectos y trabajos de mantenimiento y gestión relacionados con la rehabilitación de viviendas gestionadas por la Sociedad, facilitando a los organismos competentes, y a los adjudicatarios legitimados al efecto, la disponibilidad de las mismas.

V.– Dar soporte a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en calidad de beneficiaria o por cualquier medio admitido en derecho, y de acuerdo a lo que la normativa en vigor determine, en la realización de las actuaciones de intermediación, gestión y ejecución del derecho de adquisición preferente (vía derechos de tanteo y retracto) reconocido a favor de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en las transmisiones de viviendas de protección oficial, en los términos y condiciones de la Ley 7/1988, de 15 de abril, y normativa de desarrollo de la misma, en especial, el Decreto 103/1997, de 6 de mayo, así como cualquier otra normativa que se pueda dictar en sustitución o desarrollo de la existente sobre la materia.

VI.– Dar soporte a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en las actuaciones de intermediación en las transmisiones de viviendas y la adquisición y posterior venta o alquiler de las mismas, en los casos en los que según la normativa de viviendas de protección oficial el titular de aquéllas deba ponerlas a disposición de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Consejo de Administración de la Sociedad, en su sesión celebrada el 9 de septiembre de 2008, acordó, entre otros asuntos, proponer a la Junta General una ampliación de capital para resolver las necesidades de tesorería que el desarrollo del objeto social requiere. Tal propuesta supone una ampliación del capital de dos millones novecientos noventa y nueve mil seiscientos noventa tres millones de euros con ochenta y dos céntimos de euro (2.999.693,82), sobre el capital actual fijado en sesenta mil ciento dos euros (60.102), representado en 4.991 nuevas acciones de 601,02 euros de valor nominal cada una, que serán suscritas y desembolsadas íntegramente por el socio único, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El porcentaje de participación directa de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la Sociedad tras la ampliación referida alcanza el 100% de la misma.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 9 de diciembre de 2008,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Bazkide bakarraren eskubideez baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ondoko akzioen partaidetza izatea baimentzea: lau mila bederatziehun eta laurogeita hamaika (4.991) akzio; akzio bakoitzak seiehun eta bat euro eta bi zentimoko (601,02) balio izenduna du, serie eta klase bakarrekoak dira, ehun eta batetik (101) bost mila eta laurogeita hamaikara (5.091) arteko zenbakiak dituzte (biak barne); parean jaulkiko dira, eta edozein jaulkipen-gastu edo –zergatik libre daude. Halaber, akzio horiek aipatu sozietate publikoaren Akziodunen Batzar Nagusiak hartutako erabakiarekin bat etorriaz ordainduko dira.

Aipatu zabalkuntzan Euskal Autonomia Erkidegoaren zuzeneko parte-hartze portzentajea % 100ekoa da.

***2. artikulua.***– Sozietateko estatutuen 5. artikuluko 1. paragrafoa aldatu egin da. Honela idatzita geratu da:

> «1.– Sozietatearen kapitala hiru milioi berrogeita hemeretzi mila zazpiehun eta laurogeita hamabi euro eta laurogeita bi zentimokoa da (3.059.792,82), eta 5.091 akziok osatzen dute, ohikoak eta izendunak eta klase eta serie bakarrekoak; akzio bakoitzak seiehun eta bat euro eta bi zentimoko (601,02) balio izenduna du, 1etik 5.091rako zenbakiak dituzte (biak barne) korrelatiboki, eta titulutan gauzatzen dira. Talondegiliburuetan antolatuko dira akzioak».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 9an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Autorizar a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la suscripción en el ejercicio de sus derechos de socio único, de cuatro mil novecientos noventa y un (4.991) acciones de seiscientos un euros con dos céntimos de euro (601,02) cada una de ellas, de única serie y clase, numeradas correlativamente de la ciento una (101) a la cinco mil noventa y una (5.091), ambas inclusive, a la par y libre de todo gasto e impuesto de emisión, así como su desembolso que se efectuará en los términos del acuerdo adoptado por la Junta General de accionistas de la referida Sociedad.

El porcentaje de participación directa de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la Sociedad tras la ampliación referida alcanza el 100% de la misma.

***Artículo 2.***– Se modifica el artículo 5, párrafo 1 de los Estatutos Sociales, que quedará en lo sucesivo redactado como sigue:

> «1.– El capital social es de tres millones cincuenta y nueve mil setecientos noventa y dos euros con ochenta y dos céntimos de euro (3.059.792,82), y está representado por 5.091 acciones ordinarias y nominativas, de una sola clase y serie, de seiscientos un euros con dos céntimos de euro (601,02) euros de valor nominal cada una de ellas, numeradas correlativamente del 1 al 5.091, ambos inclusive, y materializadas en títulos. Las acciones vendrán dispuestas en libros-talonarios».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.